

# LOGIKA - ARRAZONAMENDUA



**1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten zenbakiak bilatu nahi ditugu:**

- 4 zifra ditu eta kapikua da.
- Zifren batura 6 da.
- Hamarrekoen zifra 2 da.

ERANTZUNA: [ ]

- 2 baino handiagoa eta 3 baino txikiagoa.
- 2tik hurbilago dago 3tik baino
- 0,2 batuz gero, 3tik hurbilago dago 2tik baino.

ERANTZUNA: [ ]

**2. Hiru maleta ditugu: A, B eta C. Asmatu maleta bakoitzean zer dagoen. Horretarako, amaitu taula.**

- **Karpeta** eta **artaziak** maleta berean daude, baina maleta hori ez da A.
- **Nezeserra** B maletan dago.
- **Nezeserra** eta **egutegia** ez daude maleta berean.
- **Jertsea** ez dago A maletan.
- Maleta bakoitzean bi gauza daude.

| | A maleta | B maleta | C maleta |
|---|---|---|---|
| Karpeta | EZ | | |
| Nezeserra | | | |
| Prakak | | | |
| Artaziak | EZ | | |
| Egutegia | | | |
| Jertsea | | | |

## 3. Bilatu lauki bakoitzean ezkutatuta dagoen zenbakia:

8 9 11 15 16 99

| | | |
|---|---|---|
| Beste biren biderkadura da. | Bider 8 egiten bada, zeroz amaitzen den zenbaki bat ematen du. | Bi zifrak berdinak dira eta ez da handiena. |
| Zati 8 egiten bada, hondarra 0 da, eta ez da 8. | Bider 8 egiten bada, emaitza 72 izango da. | Txikiena da. |

## 4. Asmatu zenbat urte dituen txakurkume bakoitzak:

- Duna zaharragoa da Ray eta Pino baino.
- Pino gazteagoa da Ray baino.
- Arre da zaharrena.
- Hauxek dira adinak: 24 20 11 7




## 5. Ondoz ondoko lau zifraz osatutako zenbaki baten bila ari gara. Badakigu...

- Sei mila baino handiagoa dela.
- Milakoen zifra txikiena dela.
- Zifrarik handiena ez dagoela hamarrekoen tokitan.
- Batekoen eta hamarrekoen zifren arteko batura 17 dela.

__ __ __ __

6. **Ordenatu istorio hau, ekintza bakoitza zer ordutan gertatu den kontuan hartuta.**
**Horretarako, lehenbizi, ordua kalkulatu, eta gero orduen arabera ekintzak ordenatu. Lehenengo biñeta, hasierakoa, ipinita dago.**




| | |
|---|---|
| 19 | 30 |
| 0h 0min | |



| | |
|---|---|
| | |
| + 1 h 15 min | |



| | |
|---|---|
| 21 | 25 |
| | |



| | |
|---|---|
| 21 | 15 |
| | |



| | |
|---|---|
| | |
| + 1 h 50 min | |



| | |
|---|---|
| 22 | 00 |
| | |